



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/29

Bost zergatan tributu arloko aldaketak jasoten dituan Foru Arau Proiektuak Batzarretako izapidea gainditu dau batzordean, 10 zuzenketa-eske onartuta

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko tributu sistemako bost zergaren hainbat alderdi aldatzeko Aldundiak aurkeztu dauen Foru Arau Proiektuaren aurreko 25 zuzenketa-eske partzialak eztabaidatu ditue gaur: PFEZ, Soziedadeen gaineko Zergea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergea, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergea, eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergea.

Azkenean, aurrerago egingo dan osoko bilkura batean berretsi beharko dan behin betiko erespenak 10 zuzenketa jasoko ditu, guztiak be EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek batera aurkeztutakoak. Batzordeak ez ditu onartu EH Bilduk aurkeztu dituan 7 zuzenketa-eskeak eta Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dituan 8ak. Dana dala, talde horreek, aurrerago egingo dan osoko bilkura batean barriro be defenditzeko eskubidea gorde dabe. Artikuluz-artikulu bozkatu dan Foru Arau proiektuak EAJ-PNVren, PSE-EEren, PPren eta Talde Mistoaren aldeko botoak jaso ditu.

Onetsi diran aldaketa gehienak txikiak izan dira, izaera teknikoa daben doikuntzak edo akatsen zuzenketa, hain zuzen be. Halanda be, zuzenketa-eskeen artean, batzordeak, bost zerga horreetako arauzko aldaketen aplikazinoa 2017ko urtarrilaren 1era atzeratzen dauen bat onetsi dau, aldaketa horreen “segurtasun juridikoa bermatzeko”, Janire Bijueska EAJ-PNV taldeko ordezkariak adierazo dauenez. Hasiera batean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu behar zan indarrean Foru Araua.

DOIKUNTZAK DIRU-BILKETAREN JATSIERIA DALA ETA

Beste alde batetik, EH Bildu taldeak, 2016ko lehenengo hilebeteetan diru-bilketak izan dauen jatsierak izango dituan “ondorioen” gainean galdetu dau, lurraldeko kontuak koadrau ahal izateko. Arantza Urkaregik, denpora egokiagoen zain geratu beharko diran “egitismo” zehatzak eta Aldundiak sail bakotxean egin beharko dituan aurrekontuetako “doikuntzak” zeintzuk izango diran jakin gura izan dau.

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak adierazo dauenez, “gauza gitxi aldatu da” joan dan bagilaren 10ean gai bera dala eta batzordean azalpenak emon ebazanetik. Orduan esan eban moduan, Aldundiko arduradunak, maiatzean izandako hobekuntzea aitatu dau. Hori dala eta, Aldundiko kutxek, urteko lehenengo bost hilebeteetan 2015ekoetan baino “%0,2 gitxiago” jaso dabe. Apirilera arteko jatsierera nabarmenagoa izan zan, %2,8koa, hain zuzen be.

Dana dala, eta EH Bilduri erantzunez, “gaur egun” Aldundiak ez dauela bere gastuetan ezelango “doikuntzarik” egiteko asmorik esan dau Iruarrizagak, PFEZ, Ondare eta Soziedadeen gaineko zergak itxi arte itxaron behar dalako. Halanda be, prekauzino moduan jakinarazpena bialdu jake



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Aldundiko sailei eta Bizkaiko udalerriei, gastuan “lehentasunak jarri daiezan”, “azkenengo hiruhilekorako itziz ezinbestekoak ez diran gaiak”. Aldundiari jagokonez, ezinbesteko horreen artean, “gizarte zerbitzuetara edo garraio publikora” zuzentzen diranak aitatu ditu Iruarizagak. Diputatuak bere egunean aurreratu eban moduan, bere sailak baztertu egingo dau, momentuz, Artxandako Jolas parkea desmanteletako proiektua, Urkaregik gogoratu deutson moduan.

Oposizinoak kritikau egin ditu Aldundiaren aurrekontu plangintza “txarra” eta doikuntza horreek zein atalean gertauko diran jakiteko “eskubidea” daben herritarrei emon beharreko erantzuna. Zelanbaiteko ulermena erakutsi dauen batzarretako oposizino talde bakarra Talde Mistoa izan da. Arturo Aldecoa talde horretako ordezkari bakarraren berbetan, “erabateko zuhurtzia” behar da, beste gauza batzuen artean, ez dakigulako ze ondorio izango dauen “Brexit” deritxonak.

Iruarizaga defendidu egin da, diru-sarrerren aurreikuspenak irailean eta urrian egiten dirala esanez. Hilebete horreetan gaitza da zerga batzuen bilakaerea zelangoa izango dan aurreikustea, igaz BEZaren diru-bilketagaz gertau zan moduan, petrolioaren prezioaren jatsiera zala eta, edo Araubide komunean dagozan enpresei egindako kontuko ordainketea dala eta Soziedadeen Zergan gertau zan moduan. Gogoratu dauenez, aurrekontu horreek, lau alderdi politiko desbardinaren esku egozan lau erakunderen artean adostu ziran (PSE-EE, garai haretan Lakuan; EAJ-PNV, Bizkaian; EH Bildu, Gipuzkoan; eta PP, Araban).

Foru diputatua defendidu egin da, azken hamaika urteetan “sei” bider aurreikusitakoa baino gehiago bildu dala, “lau” alditan aurreikusitakoa baino gitxiago eta “behin” hasierako kalkuluak ekitaldiaren itxieragaz ia bat etorri dirala esanez. Gogoratu dau, baita be, udazkenean egingo dan Finantzen Euskal Kontseiluaren hurrengo bileran lehen aldiz ahotsagaz eta botoagaz egongo dirala udalerrietako ordezkariak, eta gainerako administrazino publikoakaz batera (Eusko Jaurlaritza eta hiru foru aldundiak) aurtongo eta datorren urteko diru-sarrerren aurreikuspenak finkau beharko dituela.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
29/06/2016

El Proyecto de Norma Foral que incluye cambios tributarios en cinco impuestos, pasa su trámite parlamentario en comisión con la aprobación de 10 enmiendas

Las Juntas Generales de Bizkaia han debatido hoy, en comisión, un total de 25 enmiendas parciales al Proyecto de Norma Foral que ha presentado la Diputación para modificar diversos aspectos de cinco impuestos del sistema tributario de Bizkaia: IRPF, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre Actividades Económicas, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, e Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Finalmente, el dictamen definitivo, que deberá ser ratificado en un próximo pleno, recogerá 10 correcciones, planteadas todas de manera conjunta por PNV y PSE-EE. La comisión ha desestimado 7 enmiendas presentadas por EH Bildu y 8 de Podemos Bizkaia, aunque estos grupos se han reservado el derecho de defenderlas de nuevo en una próxima sesión plenaria. El proyecto de Norma Foral, votado artículo por artículo, ha recibido el apoyo de los grupos junteros de PNV, PSE-EE, PP y Mixto.

La mayoría de las modificaciones aprobadas han sido de carácter menor, bien ajustes de carácter técnico o corrección de erratas. De todas formas, la comisión ha aprobado entre las enmiendas, una que retrasa la aplicación de los cambios normativos en estos cinco impuestos al 1 de enero de 2017 para “garantizar la seguridad jurídica” de tales modificaciones, ha apuntado la representante del PNV Janire Bijueska. Inicialmente, la Norma Foral hubiera entrado en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

AJUSTES POR LA CAÍDA DE LA RECAUDACIÓN

Por otro lado, EH Bildu ha preguntado por los “efectos” que tendrá la caída de la recaudación en los primeros meses de 2016 de cara a cuadrar las cuentas del territorio. Arantza Urkaregi quería conocer los “proyectos” concretos que podrán esperar a tiempos mejores y los “ajustes” presupuestarios que tendrá que hacer la Diputación en cada departamento.

El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha señalado que “pocas cosas han cambiado” desde que el pasado 10 de junio compareciera en comisión por el mismo asunto. Como ya apuntó entonces, el responsable foral ha hecho alusión hoy a la mejora experimentada en el mes de mayo, que ha llevado a que las arcas forales ingresen “un 0,2% menos” que en 2015 en los cinco primeros meses del año, frente al descenso mayor que se registró hasta abril y que se situó en el 2,8%.

En cualquier caso, y contestando a EH Bildu, Iruarrizaga ha indicado que “a día de hoy” la Diputación no tiene previsto realizar “ajustes” en sus gastos, ya que espera a ver el cierre de IRPF, Patrimonio y Sociedades. Aún así, y por precaución, la Diputación ha trasladado a sus departamentos y a los municipios de Bizkaia que “prioricen” el gasto, “dejando para el último



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

trimestre aquellos asuntos que no sean imprescindibles”. En lo que toca a la Diputación, Iruarrizaga ha apuntado entre los imprescindibles a los recursos forales que se destinan a "servicios sociales o transporte público". El diputado ya apuntó que este año su departamento aparcaba de momento el proyecto de desmantelamiento del parque de Atracciones de Artxanda, como le ha recordado Urkaregi.

La oposición ha criticado la “mala” planificación presupuestaria de la Diputación y el hecho de que se vaya retrasando la respuesta a la ciudadanía que tiene “derecho” a saber ya donde se producirán esos ajustes. El único grupo juntero de la oposición que se ha mostrado algo comprensivo ha sido el Mixto que en boca de su único representante Arturo Aldecoa ha llamado a la “máxima prudencia”, porque, entre otras cosas, se desconoce el efecto que tendrá el “Brexit”.

Iruarrizaga se ha defendido explicando que las previsiones de ingresos se realizan en los meses de septiembre y octubre, y que entonces, es difícil prever la evolución de algunos impuestos como el año pasado sucedió con la recaudación del IVA por la caída del precio del petróleo o en el impuesto de Sociedades por el pago a cuenta a empresas en régimen común. Ha recordado que aquellos presupuestos fueron consensuados por cuatro instituciones gobernadas por cuatro partidos políticos diferentes (el PSE-EE, por aquel entonces en Lakua; el PNV, en Bizkaia; EH Bildu, en Gipuzkoa; y el PP, en Araba).

El diputado foral se ha defendido argumentando que en los últimos once años, en “seis” ocasiones se ha recaudado más de lo previsto, en “cuatro” por debajo y en “una” casi coincidieron los cálculos iniciales con el cierre del ejercicio. Ha destacado también que en la próxima reunión del Consejo Vasco de Finanzas de otoño estarán por primera vez con voz y voto representantes de los municipios, que junto al resto de administraciones públicas (Gobierno vasco y las tres diputaciones) deberán fijar las previsiones de ingresos de este año y el próximo.